



**BILBOKO INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO  
UNIBERTSITATE ESKOLA**



**INDUSTRIA ELEKTRONIKAREN ETA AUTOMATIKAREN INGENIARITZA**

**GRADUA :**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

2014 / 2015

*ZENTRAL HIDROELEKTRIKO ITZULGARRIA TURBINA-PONPA  
TALDEAREKIN*

**DISEINUA**

**IKASLEAREN DATUAK**

IZENA: NAIARA

ABIZENAK: GARCÍA RUIZ

SIN.:

DATA:2015-09-10

**ZUZENDARIAREN DATUAK**

IZENA:M<sup>a</sup> GORETTI

ABIZENAK:SEVILLANO BERASATEGI

SAILA: SISTEMEN INGENIARITZAETA AUTOMATIKA

SIN.:

DATA: 2015-09-10

## AURKIBIDEA

<b>3.1 INGURUNEAREN ANALISIA.....</b>	<b>1</b>
<b>3.1.1 ZENTRALAREN KOKAPENA .....</b>	<b>3</b>
<b>3.2 POTENTZIEN ETA ENERGIEN KALKULUA.....</b>	<b>4</b>
<b>3.2.1 ERABILITAKO DATUAK ETA KALKULATUKO DIREN PARAMETROEN     TAULA .....</b>	<b>4</b>
<b>3.2.2 POTENTZIAK .....</b>	<b>6</b>
3.2.2.1 TURBINA ETA SORGAILUA .....	6
3.2.2.2 PONPA ETA MOTOREA .....	8
<b>3.2.3 BALANTZE ENERGETIKO ETA EKONOMIKOA .....</b>	<b>11</b>
<b>3.3 TURBINAREN ABIADURAREN ERREGULAZIOA .....</b>	<b>13</b>
<b>3.4 PROGRAMAZIOA.....</b>	<b>17</b>
<b>3.4.1 SIMATIC STEP7 HASIERAKO KONFIGURAZIOA .....</b>	<b>17</b>
<b>3.4.2 PROGRAMAZIO LENGONEN ARTEKO ERLAZIOA .....</b>	<b>20</b>
3.4.2.1 GRAFCET PROGRAMAZIOA .....	20
3.4.2.2 GRAFCET LENGONEN ERALDAKETA .....	27
3.4.2.3 KOP PROGRAMAZIOA .....	33
<b>3.4.3 PLCSIM.....</b>	<b>81</b>
<b>3.4.4 SCADA PANTAILEN GARAPENA .....</b>	<b>82</b>

### 3.1 INGURUNEAREN ANALISIA

Proiektu honetan garaturiko bonbeozko zentralaren tamaina eta egitura baldintzatzen dituen ezaugarri nagusia orografia da. Atal honetan zehar zentralaren kokagunearen azterketa bat egingo da bonbeozko zentrala kokatu ahal den jakiteko.

Memorian aipatu bezala hainbat zentral hidroelektriko itzulgarri aurkitu daitezke ingurunearen ezaugarrien arabera, kasu honetan zentrala ingurune menditsu batez egongo da inguratuta, hori dela eta bere tamaina txikia izango da. 1.1 eta 1.2 Irudietan ikusi daitezke zehazki proiektu honetan garatutako zentrala kokatuko litzatekeen Oiolako urtegiaren ingurunea nolakoa den mapa eta satelite moduan.



3.1.1. Irudia. Oiolako urtegiaren mapa topografikoa.

3.1.1 irudia aztertuz, argi nabaritu daiteke zentrala kokatu behar den ingurunean ezinezkoa dela jauzi handi bat lortzeko beharrezkoa den altuera izatea, hori dela eta erabili ahal den makineria aukera desberdinak azertu ondoren semiKaplan turbina bat erabiltzea erabaki da. Memorian azaldu den bezala turbina mota hau jauzi txiki eta emari handiekin egiten duelako lan.



3.1.2. Irudia. Oiologo urtegia sateliteko argazki bidez.

Zentrala ondo funtzionatzeko bi urtegi behar dira. Hasiera batean, zentrala eraikitzeke presa erabiltzea pentsatu zen, baina 3.1.1 eta 3.1.2 Irudiak erakusten duten orografia aztertu ostean presaren azpiko aldean urtegi berri bat eraikitzeke egin beharreko obra oso handia eta garestia izango litzatekeela ondorioztatu da. Hori dela eta, ez-ohizko diseinu bat erabiltzea erabaki da, bonbeozko zentralaren kokapena aldatuz eta dagoen presaz aparte eraikiz. Hau da turbinak eta ponpak ez dira presan bertan kokatuko, baizik eta urtegian ezarritako makina gela batean kokatuko dira, horren ondorioz beheko urtegi bezala Oiologo uharka erabiliko litzateke eta goiko urtegirako ordea bi ur biltegiak izango lirateke, horri esker egin beharreko obra zibila murriztu eta merkeagotu egingo litzateke.

Goiko urtegi gisa  $13.000\text{m}^3$  bi ur biltegi eraikiko dira 3.1.1 Irudiko 2. Lerroaren kotan gutxi gorabehera, hau da 425m-ra eraikitzea erabaki da urtegiaren inguruko landa batean, izan ere, kontuan izan behar da urtegia 400 metroko kota bat daukala eta erreferentzia puntu bezala hartzen denez 0m direla planteatuko da kalkulue tan.

### 3.1.1 ZENTRALAREN KOKAPENA

Ezaugarri hauek direla eta puntu honetan zentralak izango lukeen itxuraren eskema orokor bat planteatzen da, goiko urtegi bezala bi ur biltegi erabiliko dira 26.000 m<sup>3</sup>-ko bolumen bat lortuz. 3.1.3 Irudian ikusi daiteke zentralaren egituraren eskema eta bere kokapena zein izango litzatekeen, urtegiko ingurunea azertu ostean kokapen hori proposatu da obra gutxien eginbeharreko eremua eta zentralaren funtzionamendua egokia lortzeko ezaugarriak betetzen dituelako.



3.1.3. Irudia. Zentralarentzako proposaturik kokapena.

## 3.2 POTENTZIEN ETA ENERGIEN KALKULUA

Programazioan erabiliko diren parametro eta baldintzak ezagutzeko, makina bakoitzaren parametroak ezagutu behar dira. Horretarako txostenaren atal honetan memoriaren 6. atalean, “6. *Hartutako Ebatziak*”, azaldu diren formulak erabiliko dira. Lehenbizi potentziaren kalkuluak landuko dira, behin hori ezagututa zentralak kontsumitu beharko lukeen eta sortu ahal izango lukeen energiaren prezioa eta kantitatea lortuko dira.

### 3.2.1 ERABILITAKO DATUAK ETA KALKULATUKO DIREN PARAMETROEN TAULA

Kalkuluak egin ahal izateko erabiliko diren datuak, inguruneak baldintzaturiko datuak dira orokorrean. Makinen ezaugarrietan erabiliko diren datuak ordea estandarizatuak izango dira. 3.2.2 *Puntuak* datu horien jatorria aztertzen delarik.

3.2.1 *Taulan* ekuazioetan ordezkatu behar diren parametroak bere balio eta unitateekin laburbilduta ematen dira.

*Taula 3.2.1: Erabili diren parametroak*

	<i>Datua</i>	<i>Sinboloa</i>	<i>Balioa</i>	<i>Unitateak</i>
1)	Uraren pisu espezifikoa	$\gamma$	9.8	
2)	Ur jauzia	H	25	m
3)	Biltegi baten bolumena	V	13.000	m <sup>3</sup>
4)	Biltegi kopurua		2	
5)	Turbinatuko diren ordu kopurua	$t_t$	4	h
6)	Ponpeatuko diren ordu kopurua	$t_p$	8	h

7)	Turbinaren errendimendua	$\eta_T$	0.75	%
8)	Ponparen errendimendua	$\eta_G$	0.75	%
9)	Sorgailuaren errendimendua	$\eta_s$	0.95	%
10)	Motorearen errendimendua	$\eta_s$	0.95	%
11)	Sarearen maiztasuna	f	50	Hz
12)	Polo pare kopurua	p	4	
13)	Sareko tentsioa	$U_{sare}$	13.2	kV
14)	Primarioko tentsioa	$U_1$	13.200	kV
15)	Sekundarioko tentsioa	$U_2$	400	V
16)	Potentzia faktorea	$\cos \varphi$	0.82	
17)	Gaineko gainazalaren altuera	$H_i$	25	m
18)	Azpiko gainazalaren altuera	$H_a$	0	m
19)	Errendimendu manometrika	$\eta_H$	0.92	%
20)	Errendimendu mekanikoa	$\eta_M$	0.95	%
21)	Errendimendu bolumentrikoa	$\eta_V$	0.88	%

Kalkuluak egiteko erabiliko diren ekuazio horietan kalkulatu diren parametroen zerrenda 3.2.2 *Taulan* zerrendatuta daude:

Taula 3.2.2: Kalkulaturiko Parametroak

	<i>Kalkulatuko diren parametroak</i>	<i>Sinboloa</i>	<i>Unitatea</i>
22)	Potentzia erabilgarria	Pu	kW
23)	Potentzia elektrikoa	Pe	kW
24)	Potentzia erreaktiboa	Q	kVAr
25)	Itxurazko potentzia	S	kVA
26)	Emaria	Q	m <sup>3</sup> /s
27)	Denbora	T	s
28)	Galera kargak	Pc	m

### 3.2.2 POTENTZIAK

Makina bakoitzeko kalkuluak independenteki egin behar direnez, atal hau bi azpiataletan banatzea erabaki da. Berez lau makina daudenez, lau azpiatal egon beharko lirateke, baina funtzionamendua modu egokian aztertzeko makinak bi taldetan banatzea nahiko da, alde batetik turbina eta sorgailua talde bat osatuko dute eta bestetik ponpa eta motorra bestea. Kalkulu hauek egiteko lehen esan bezala Memorian, “6. Hartutako Ebatziak” atalean, agertzen diren formulak erabiliko dira, formula bakoitza zein den adierazteko atal horretako erreferentziak erabiliko dira eta aurreko ataleko tauletan (3.2.1 eta 3.2.2 Taulak) adierazitako parametroen balioak ordezkatzuz beharrezko kalkuluak egingo dira.

#### 3.2.2.1 TURBINA ETA SORGAILUA

Turbinaren ardatzeko potentzia aktiboaren kalkulua alternadorearen potentziaren berdina izango da, ardatz berdinean kokaturik daudelako. Potentzia honen kalkulua egiteko



hurrengo adierazpenak behar dira. Parametro hauek ingurunearen topografia eta zentralaren kokapenak baldintzatuko dituzte.

Turbinaren emaria:

$$Q = \frac{V}{t} \left[ \frac{m^3}{s} \right] \quad (6.1)$$

$$Q = \frac{2 \cdot 13000}{4 \cdot 3600} \rightarrow Q = 1.805 \text{ m}^3/\text{s}$$

Potentzia

$$P = \gamma \cdot H \cdot Q \cdot \eta \quad (6.2)$$

$$P_{turb} = 9.8 \cdot 25 \cdot 1.805 \cdot 0.75 \rightarrow P_{turb} = 331.67 \text{ kW}$$

Abiadura espezifikoa

$$n_s = \frac{n\sqrt{P}}{H^{5/4}} \quad (6.3)$$

$$n_s = \frac{750\sqrt{331.67 \cdot 10^3}}{25^{5/4}} \rightarrow n_s \approx 245 \text{ rpm}$$

Turbina eta alternadorearen abiadura

$$n = \frac{60 \cdot f}{p} \quad (6.3.b) \text{ eta } (6.9)$$

$$n = \frac{60 \cdot 50}{4} \rightarrow n = 750 \text{ rpm}$$

Alternadorearen potentzia aktiboa

$$P = \sqrt{3} \cdot U \cdot I \cdot \cos \varphi_1 \cdot \eta \quad (6.10)$$

$$P_{turb} = P_{alter} \rightarrow I = \frac{P}{\sqrt{3} \cdot U \cdot \cos \varphi_1} \rightarrow I = \frac{331.67 \cdot 10^3}{\sqrt{3} \cdot 400 \cdot 0.82 \cdot 0.95} \rightarrow$$

$$I = 614.73A$$

Alternadorearen potentzia erreaktiboa

$$Q = \sqrt{3} \cdot U \cdot I \cdot \sin \varphi_1 \cdot \eta \quad (6.11)$$

$$Q = \sqrt{3} \cdot U \cdot I \cdot \sin(\cos^{-1} \varphi_1) \cdot \eta \rightarrow Q = \sqrt{3} \cdot 400 \cdot 614.73 \cdot \sin(\cos^{-1} 0.82) \cdot 0.95 \rightarrow$$

$$Q = 24.7 \text{ kVAr}$$

Alternadorearen itxurazko potentzia

$$S = \sqrt{P^2 + Q^2} \rightarrow S = 411.57 \text{ kVA} \quad (6.12)$$

### 3.2.2.2 PONPA ETA MOTOREA

Behin turbinaren ezaugarriak eta lortuko diren potentziak ezagututa, ponparen kalkuluak egiteko prozedura bera jarraituko da. Nola ponpatze orduak turbinatze orduen bikoitza direnez, lortzen den emaria desberdina izango da. Ponpaketarako 8 ordu erabiliko dira.

Emaria

$$Q_{ponpa} = \frac{V}{t} \left[ \frac{m^3}{s} \right] \quad (6.4)$$

$$Q = \frac{2 \cdot 13000}{8 \cdot 3600} \rightarrow Q = 0.902 \text{ m}^3/\text{s}$$

Aurrerago kalkulatu behar izango diren galera kargak kalkulatzeko, lortu den emariaren emaitzaren unitateak aldatu beharra dago,  $m^3/\text{segundu}$  litro/segundutara.

$$Q = 0.902 \frac{m^3}{s} \cdot \frac{1000l}{1m^3} \cdot \frac{3600s}{1h} \rightarrow Q = 331200 \text{ l/s}$$

Ponparen alturera manometrikoa eta turbinaren altuera kontzeptu desberdinak dira, hori dela eta ezin da zuzenean turbinan erabilitako balio berdina erabili ponpan. Altuera manometrikoa ponpak ura igo beharreko altuera da, hori dela eta altuera honi karga galerak gehitu behar zaizkio. Karga galera hauek kontuan hartuko ez balira ponpak ezingo luke likidoa behar deneko altuerara igo.

Kalkulu hau egiterako orduan kontuan izan behar igo nahi den likidoaren bi gainazalak (hasiera eta amaierako) atmosferarekin egongo direla kontaktuan, hori dela eta presio bera izango dute  $P_i = P_a$ . Galera kargen balio lortzeko ikusi Eranskinen 4. Dokumentua taula, bertan emariaren balioa erabiliz  $P_c$  balioa lortzen da, kontuan izanik burdinazko hodi bat denez, taulan irakurritako balioa 1.5 balioa biderkatu behar zaiola.

$$H = H_g + P_c + 10 \cdot \frac{P_i - P_a}{\gamma} \quad (6.6)$$

$$H_g = H_a + H_i \quad (6.7)$$

$$P_c = 9.3 \cdot 1.5 = 13.95 \text{ m}$$

$$H = H_a + H_i + P_c \rightarrow H = (0 + 25) + 13.95$$

$$\rightarrow H = 28.95 \text{ m}$$

Ponparen eta motorearen potentzia kalkulatzeko hainbat potentzia desberdin hartu behar dira kontuan: Potentzia erabilgarria, Potentzia elektrikoa eta Ponparen

ardatzeko potentzia. Memoriaren 6. atalean, “6. Hartutako Ebatziak”, atalean ikusi daiteke haien arteko desberdintasunen xehetasunak.

Potentzia erabilgarria:

$$P_u = \gamma \cdot Q \cdot H \quad (6.8)$$

$$P_u = 9.8 \cdot 0.908 \cdot 28.95 \rightarrow P_u = 344.30kW$$

Ponparen ardatzak jasotako potentzia

$$P_b = \frac{\gamma \cdot Q \cdot H}{367 \cdot \eta_H \cdot \eta_V} \quad (6.8.a)$$

$$P_b = \frac{\gamma \cdot Q \cdot H}{367 \cdot \eta_H \cdot \eta_V}$$

Potentzia elektrikoa

$$P_e = \frac{\sqrt{3} \cdot U \cdot I \cdot \cos \varphi}{1000} \quad (6.8.b)$$

Potentzien arteko erlazioak

$$P_u = P_b \cdot \eta_H \cdot \eta_V \quad (6.8.c)$$

$$P_u = P_e \cdot \eta_H \cdot \eta_V \cdot \eta_M = P_e \cdot \eta_G \quad (6.8.d)$$

$$\eta_G = \eta_H \cdot \eta_V \cdot \eta_M \quad (6.8.e)$$

Potentzia elektrikoaren kalkulurako ez da (6.8.b) adierazpena erabiliko, horren ordez potentzia erabilgarriaren balioa eta errendimenduak ezagutzen direnez, (6.8.d) adierazpena erabiltzea komenigarriagoa dela erabaki da.

$$P_u = P_e \cdot \eta_G \rightarrow P_e = \frac{P_u}{\eta_G} \rightarrow P_e = \frac{334.30}{0.88 \cdot 0.92 \cdot 0.95} \rightarrow P_e = 447.65 \text{ kW}$$

### 3.2.3 BALANTZE ENERGETIKO ETA EKONOMIKOA

Aurreko atalean lorturiko emaitzak ikusita zentrolean lorturiko balantze energetikoa negatiboa dela nabaritzen da, egoera ponpak kontsumituriko energia kantitatea turbinak sortutakoa baino handiagoa izango da denbora gehiagoz egongo delako lanean. Balantze energetiko negatibo bat eduki arren kontuan hartu behar da elektrizitatearen prezioa ere aldakorra dela, horri esker ponparen bidez kontsumituriko potentzia elektrikoaren prezioa baxua izango da eta turbinatzerakoan, aldiz, salduko den elektrizitatearen prezioa garestiagoa izango da. Hori dela eta balantze ekonomikoa positiboa izango da balantze energetiko negatibo bat eduki arren. Hurrengo adierazpenen bidez ikusi daiteke zein den lortu ahal izango litzatekeen irabazia:

Zentralaren ezaugarriak ikusita Iberdrolaren 3.1.A tarifa kontratu beharko da (Ikusi eranskinen 3. Dokumentua tarifari buruzko informazio zehatza eskuratzeko), kontsumitu eta sortuko den potentzia 450kW ingurukoa delako. Elektrizitatearen prezioaren kalkulua egiteko (7.0) adierazpena erabiliko da:

$$E(\text{kWh}) = P_e \cdot 24 \cdot 365 \quad (7.0)$$

$$\text{Prezioa turbinatzerakoan} = E(\text{kWh}) \cdot \text{Prezioa max} \quad (7.1)$$

$$\text{Prezioa ponpaketan} = E(\text{kWh}) \cdot \text{Prezioa min} \quad (7.2)$$

Prezioa periodoaren araberkoa denez Iberdrolako tarifatik harturiko prezioak erabiliko dira, kasu honetan hurrengo puntuetako balioak izango dira. Prezio hauek 2015eko uztailaren 1ean onartu zirenak dira.

Punta orduak: 0,014335 €/kWh

Ordu lauak (bitarteko orduak): 0,012754 €/kWh

Bailara orduak: 0,007805 €/kWh

Hau kontuan izanda lortuko den balantze energetikoa hurrengo da:

$$- \text{Prezioa turbinatzerakoan} = 331.67 \text{ kW} \cdot 24 \cdot 365 \cdot 0,014335 \frac{\text{€}}{\text{kWh}} \rightarrow$$

$$\text{Prezioa turbinatzerakoan} = 41.649,32\text{€}$$

$$- \text{Prezioa ponpaketan} = 447.65 \text{ kW} \cdot 24 \cdot 365 \cdot 0,007805 \frac{\text{€}}{\text{kWh}} \rightarrow$$

$$\text{Prezioa ponpaketan} = 30.606.63\text{€}$$

Lorturiko emaitzak aztertuz gero ikusi daiteke potentzien balantzea negatiboa izan arren balantze ekonomikoa positiboa izango dela eta lorturiko irabazpenak 11.042,69 €.

### 3.3 TURBINAREN ABIADURAREN ERREGULAZIOA

Proiektuaren programazioarekin hasi aurretik kontuan izan behar da turbina oso makina konplexua dela makina sinkrono eta ponpekin konparatzen baldin bada, hori dela eta abiaduraren kontrola nola egiten den azalduko da atal honetan zehar. Funtzionamendu hau ezagutzea ezinbesteko da “4.Programazioa” atalean proposatutako programazioa ulertzeko.

Proiektu honetan zentral hidroelektrikoak dituen semikaplan turbinen funtzionamendua kudeatu beharko da. Semikaplan turbinen funtzionamendu egokirako kontutan hartu behar den ezaugarri nagusia alabeen erregulazioa da. Kontrol hau egiteko hainbat modu daude hala nola PID bidez edota programa bidez. Kasu honetan, proiektuak behar duen zehaztasuna kontutan izanda, alabeen erregulaziorako euren funtzionamendua kontrolatzen duen programa erabiltzea erabaki da.

Alabeen kontrola turbinaren martxa sekuentziarekin dago erlazionatua, beraz erregulazio prozesu hau azaldu eta ulertzeko martxa prozesua ere azaldu beharra dago. Prozesu horren funtzionamenduaren ulergarritasuna hobetzeko, Grafset irudikapenaren bidez ere azalduko da..

Zentral honen turbinaren martxa sekuentzia erregulatzeko 4. balbularen posizioa erabiliko da. Balbula honek hiru lan posizio edukiko ditu: itxita, erdi irekita eta irekita. Martxa sekuentziaren hasieran balbula erdiraino irekiko da, horrela alternadoreak akoplamenturako behar duen abiadura lortuko du turbinaren abiadura maximoa gainditu gabe. Alternadorea sarera akoplatu aurretik turbinaren alabeei irekitzeko agindua emango zaie, horri esker alternadoreari karga jarriko zaio hutsean biratu ez dezan. Behin sinkronismo abiadura lortu denean alternadorea sarera akoplatuko da, sinkronismo abiadura lortu dela eta aklopatzeko momentua dela zehazteko sinkronoskopia erabiliko delarik.

Behin turbina akoplatuta dagoenean, alternadorea kitzikatzen hasi beharko da eta kontsignako potentzia bilatuko da denbora oro. Alternadore bat bi harilkadurez dago osatua: errotorea eta estatorea. Errotorean eremu magnetiko txiki bat sorraraziko da

kanpoko elikadura batekin, horrela harilkadura horiek eremu magnetiko horretan biratzen dutenean energia elektrikoa sortuko dute. Zenbat eta kitzikadura handiagoa izan geroz eta eremu magnetiko handiagoa egongo da alternadorean sorturiko potentzia ere handituz.

Kitzikadura hori sortzeko errotorearen korrontearen balioekin jolastuko da, beraz turbinarekin sorturiko potentzia kontsigna bezala zehaztutakoa baino handiagoa denean kitzikadura korronteen balioa murriztuko da. Sorturiko potentzia kontsignako potentziaren balioa baino txikiagoa denean aldiz, baldin bada sorgailua motor bihurtuko da turbina balaztatuz. Kasu horretan, turbinak ez duenez sinkronismo abiadura lortzeko abiadura nahikoa balaztatze hori sortuko da eta sarera konektatuta dagoenez bertatik kontsumitu beharko du potentzia sinkronismo abiadura mantentzeko. Balaztatze hori ekiditeko kitzikapen hori handitu beharko litzateke korrontearen balioa handituz.

Sistema honen bidez turbinaren abiaduraren kontrola egingo da, hasiera batean alabeen posizioaren bidez kontrolatuko da abiadura hori. Behin sinkronismo abiadura lortu dela alabeak finko geldituko dira eta alternadorearen kitzikapenaren bidez kontrolatu beharko da. Proiektu honen bonbeozko zentralaren kasuan lehen esan den bezala Diseinuko dokumentuko “4.Programazioa” ataleko Graficetetan egongo da adierazita.


Alabeen posizioaren kontrola egiteko 3.3.1 irudian agertzen den sistema mekanikoa erabiliko da, ondoko elementuez osatuta dagoelarik:

1. Pstoi Hidraulikoa
2. Karrera Amaiera Sentsoreak (Pos\_max eta Pos\_min)
3. Erregela

Zentralaren kasuan guztiz irekita edo itxita dauden egoerak bakarrik erabiliko direnez karrera amaierak erabiltzea erabaki da, hala ere alabeen posizioa modu zehatz batean ezagutu nahi bada turbinak dauden makina gelara jaitsi eta 3.3.1 irudian agertzen den erregela ikusi daiteke. Irudi horretan adierazten den moduan, bi karrera amaiera sentsore erabiliz (programaren Pos\_max eta Pos\_min izango direnak) alabeen posizioa



momentu oro ezagutu daiteke. Hurrengo puntuetan ikusi daiteke zein diren irudiko elementu bakoitza zerrendatuta:



3.3.1. Irudia. Alabeen posizio kontrolaren sistema mekanikoa

3.3.1 irudian ikusi daitekeen moduan alabeen posizioa zehazteko pistoi hidrauliko bat erabiltzen da, pistoi hori sistema mekaniko baten bidez mugiaraziko du erregela hori alabeen posizioa adieraziz. Sistema hidrauliko hori mugiarazteko 3.3.2 irudian azaltzen den olio elikadura erabiliko da, bertako balbulen erregulazioaren bidez pistoiaren mugimendua zehaztuko da.



3.3.2. Irudia. Lubrikazio makina et alabeen pistoiaren olio hornitzailea.

Turbinaren lubrikazioa ezinbesteko prozesu batenez makina hondatu ez dadin langileak baimendu beharko du SCADA pantailaren bidez, hau da turbinaren funtzionamendua baimentzeko bi baldintza bete beharko dira: turbinaren martxa baimendu eta lubrikazioa. Honen bidez goian azalduko lubrikazio prozesua beteko berritu ahal izango da. Lubrikazioa prozesua 3.3.2 irudiko makinaren bidez egingo da, bertan motor elektriko bat jarriko da martxan botoi hori sakatzerakoan, motor elektriko hori ponpa oleo-hidrauliko bati egongo da konektatua eta ponpa horren bidez turbinaren kojinetetara sartuko zaio olio. Hala ere lubrikazioaren motor honen aktibazioa ez da SCADAren bidez egingo langilea lubrikazio makina dagoen lekura joan beharko da eta bertan kokaturiko botoi bat sakatu beharko du hau aktibatuz. Prozesu hau eskuz egitea erabaki da sistemari segurtasun handiagoa emateko, horrela langileak turbinaren sentsoreak ondo daudela ziurtatzeaz gain lubrikazio makina olio hornituta dagoela bermatuko du, bakarrik prozesu honetan egingo da lubrikazio prozesua ezinbestekoa delako turbinak ondo funtziona dadin.

## 3.4 PROGRAMAZIOA

Atal honetan, proiektuan garatutako zentralaren funtzionamendurako erabiliko litzatekeen interface-aren garapena azaltzen da. Proiektuaren erabiltzaile pantaila garatzerako orduan automatara helduko diren seinale kopurua hain handia izanik simuladore bat erabili da guztiak jaso ahal izateko. Programazioa garatzeko hasteko hurrengo ataletan azaltzen diren pausuak jarraitu dira.


### 3.4.1 SIMATIC STEP7 HASIERAKO KONFIGURAZIOA

SIMATIC STEP 7 automata programagarrien kodeak sortzeko erabiltzen den Siemens etxeak garaturiko programa bat da. Proiektu hau aurrera eramateko Siemens etxeke automata bat aukeratuenez bere programazioa KOP lengoaian egingo da Step 7-a erreminta erabiliz.


Programa irekitzerakoan agertzen dena lehenengo pantaila proiektu berri bat sortzeko laguntzailea da, bertan erabiliko den CPUa eta proiektuaren izena aukeratu da *3.4.1*, *3.4.2* eta *3.4.3* irudietan ikusi daitekeen moduan. Proiektuaren programazioa Siemens-eko KOP lengoaian egingo da



3.4.1. Irudia. STEP7 laguntzailea




3.4.2. Irudia. CPUaren aukeraketa.




3.4.3. Irudia. Programazio lengoaiaren aukeraketa.

Behin prozesu hau egin dela automataren Hardwarea aukeratu behar da: erabiliko den elikadura iturria, sarrera-irteera moduluak, etab. Horretarako 3.4.5. Irudiko pantaila erabiliko da, pantaila hori proiektua sortzerakoan agertu da, bertako “Equipo SIMATIC300” aukeratuko da eta bertako Hardware atala zabalduko da 3.4.4. Irudian ikusi daitekeen moduan.



#### 3.4.4. Irudia. Hardwarearen konfigurazioa.

Behin hasierako konfigurazio hau egin dela 3.4.5. Irudiko pantailara itzuli behar da eta bertan programaziorako erabiliko diren aldagaiak zehaztu behar dira “Tabla de simbolos” esaten duen atalean.



#### 3.4.5. Irudia. Aldagaien taularen helbideratzea.

Bertan automataren irteera eta sarreren izenak eta helbideak zehaztuko dira. Behin aldagaien taula gorde dela OB1 blokea irekiko da eta bertan sortuko da programa 3.4.6. Irudian ikusi daitekeen moduan.

Programatzerako orduan kontuan izan behar da Grafcet egitura mantendu behar dela KOP lengoiairekin, hori dela eta “4.2.2 *Grafcet Lengoiaren Eraldaketa* “ Atalean azalduko den eraldaketa hartu behar da kontuan. Hori lortzeko Grafcetaren etapak marken bidez adieraziko dira, beraz SET eta RESET aginduak hartu beharko dira kontuan.




3.4.6. Irudia. Programazio pantaila.

## 3.4.2 PROGRAMAZIO LENGOAIEEN ARTEKO ERLAZIOA

Automata bat programatzeko hainbat lengoia mota desberdin aurkitu daitezke industrian, kasu honetan hasierako programazioa Grafcet bidez egin da ulergarriagoa izateko. Baina Siemens-eko programarekin ezin da zuzenean Grafcet lengoia erabili, beraz, lengoia eraldaketa bat egin behar da Grafcet-etik KOP-era. Eraldaketa prozesu hau eta amaierako programazioaren garapena ondorengo ataletan zehaztuta dago.


### 3.4.2.1 GRAFCET PROGRAMAZIOA

Lehendabizi, programaren egitura nagusia Grafcet baten bidez adierazten da 3.4.7. irudian, bertan garatu beharko diren azpi-grafcet-en arteko erlazioa argitasunez aztertu ahal izateko.



3.4.7. Irudia. Grafcet Nagusia.


3.4.8. irudiko bigarren Grafcet honetan zentralaren hasierako baldintzak zehazten dira, hau da hemen Bonbeozko Zentrala hasieratzeko beharrezkoak diren ezaugarriak zehaztuko dira. Zentralaren funtzionamendu egokirako hasieran balbula guztiak itxita egon behar dira eta aldi berean makina guztiak gelditu.



3.4.8. Irudia. Hasierako Baldintzen Grafet-a.

Hirugarren Grafet batean edozein alarma mota gertatzen denean bete beharreko agindu eta baldintzak zehaztuko dira, 3.4.9. irudian adierazten den moduan.






3.4.9. Irudia. Alarma Grafcet-a.


Edozein prozesu industrialean eskuzko funtzionamendu bat egon behar da, matxura edota mantentze funtzioak egin behar direnean makina ezin da modu automatikoan egon lanean segurtasuna ziurtatu behar delako, hori dela eta funtzionamendu mota hori egon

behar da eskuragarri. 3.4.10. irudian ikusi daitezke zentral honen eskuzko funtzionamenduaren bidez kontrolatu daitezkeen aginduak.




3.4.10. Irudia. Eskuzko Funtzionamenduaren Graficet-a.

Behin hasierako prozesu hauek bete direla funtzionamendu automatikoa hasiko da lanean. Kasu honetan lan mota orduaren araberakoa izango da, hau da bailara orduetan (00:00 h- 08:00 h udan eta neguan) ponpaketa prozesua baimenduko du langileak eta punta orduetan ordea ( 17:00 h- 22: 00 h neguan eta 10:30 – 15:30) turbinaketa prozesua emango da.. 3.4.11. irudian turbinaketa prozesua aztertuko da.



3.4.11. Irudia. Turbinaketa Prozesuaren Grafet-a.


Ponpaketa prozesua aztertuko da zehaztasunez 3.4.12. irudian, hau da bailara orduetan emango den prozesua.



3.4.12. Irudia. Ponpaketa Prozesuaren Grafcet-a.

Amaitzeko STOP botoia sakatu osteko prozesua azalduko da, hau da 3.4.13. irudian ematen den Ziklo Amaiera deituriko azpi grafceta. Edozein prozesu amaitzen denean amaierako baldintza batzuk zehaztu behar dira makineria berriro erabiltzeko prest egon dadin. Kasu honetan ur biltegien hustuketa egingo da eta makineria guztia geldituko

da, aldi berean hustuketa amaitzerakoan balbula guztiak itxita utziko dira ur hodiak trabatu ez daitezen lanean ez dauden bitartean.



3.4.13. Irudia. Ziklo Amaierako Grafcet-a.

### 3.4.2.2 GRAFCET LENGOAAREN ERALDAKETA

Atal honetan Grafcet programaziotik KOP-era egin beharreko eraldaketa azalduko da, horretarako Grafcet bakoitzaren etapa bakoitzaren aztertu behar dira, horrela bakoitzaren set eta reset baldintzak aztertu ahal direlarik. Hurrengo puntuetan ikusi ahal da Grafcet bakoitzaren etapa bakoitza.

Atal honetan dagoen lehenengo taula honetan, 3.4.1. *taulan* alegia, aurreko ataleko grafcet nagusiaren lengoaiaren eraldaketa aztertu daiteke. Lehenengo zutabeen Grafcet-aren zein etapa programatuko den agertzen da, bigarrenetan etapa hori hasteko eman behar diren baldintzak eta azkenik hirugarrenean etapa amaitzeko bete beharrekoak.

Taula 3.4.1. Grafcet Nagusia.

<i>ETAPA</i>	<i>SET</i>	<i>RESET</i>
X0	X9	X124 · RUN
X1	X124 · RUN	X30
X2	X30 + X8	Auto_Esku + $\overline{Auto\_Esku}$
X3	Auto_Esku · X30	$\overline{Auto\_Esku}$ · X32
X4	$\overline{Auto\_Esku}$ · X30	$\overline{Auto\_Esku}$
X5	X32 + X4	T_M_B + P_M_B
X6	X5 · T_M_B	X70
X7	X5 · P_M_B	X81
X8	X70 + X81	STOP · $\overline{STOP}$
X9	X8 · STOP	X99 · X0

Bigarren taula batean, 3.4.2. *taulan* hain zuzen ere, Grafcet nagusiaren X1 bat etaparen barruan aurkitzen den azpigrafcet-a aztertzen da, hau da programa hasteko eman beharreko baldintzak agertzen dira zehaztuta.

Taula 3.4.2. Hasierako Baldintzak.

<i>ETAPA</i>	<i>SET</i>	<i>RESET</i>
X10	X30	X1
X11	X10 · X1	B_1_S
X12	X10 · X1	B_2_S

X13	X10 · X1	B_3_S
X14	X10 · X1	B_4_S
X15	X10 · X1	B_5_S
X16	X10 · X1	B_6_S
X17	X10 · X1	B_7_S
X18	X10 · X1	B_8_S
X19	X11 · B_1_S	B_1_S · B_2_S · B_3_S · B_4_S · B_5_S · B_6_S · B_7_S · B_8_S
X20	X12 · B_2_S	B_1_S · B_2_S · B_3_S · B_4_S · B_5_S · B_6_S · B_7_S · B_8_S
X21	X13 · B_3_S	B_1_S · B_2_S · B_3_S · B_4_S · B_5_S · B_6_S · B_7_S · B_8_S
X22	X14 · B_4_S	B_1_S · B_2_S · B_3_S · B_4_S · B_5_S · B_6_S · B_7_S · B_8_S
X23	X15 · B_5_S	B_1_S · B_2_S · B_3_S · B_4_S · B_5_S · B_6_S · B_7_S · B_8_S
X24	X16 · B_6_S	B_1_S · B_2_S · B_3_S · B_4_S · B_5_S · B_6_S · B_7_S · B_8_S
X25	X17 · B_7_S	B_1_S · B_2_S · B_3_S · B_4_S · B_5_S · B_6_S · B_7_S · B_8_S
X26	X18 · B_8_S	B_1_S · B_2_S · B_3_S · B_4_S · B_5_S · B_6_S · B_7_S · B_8_S
X27	X19 · X20 · X21 · X22 · X23 · X24 · X25 · X26	$\overline{T_p}$
X28	X27 · $\overline{T_p}$	$\overline{T_t}$
X29	X28 · $\overline{T_t}$	$\overline{F}$
X30	X29 · $\overline{F}$	X3 · X10 + X4 · X10

Eskuzko funtzionamendu Grafcetaren lengoia eraldaketa azaltzen da 3.4.3. taulan, kasu honetan etapa bakarrean (X33 etapan) hainbat baldintza bete daitezke. Horregatik etapa berean + baten bidez agertzen dira adieraziak inoiz ez direlako guztiak batera aktibatuko.

Taula 3.4.3. Eskuzko Funtzionamendua.

ETAPA	SET	RESET
X32	X33	Auto_Esku
X33	$X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 1\_B\_ITX\_E + X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 1\_B\_IR\_E +$ $X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 2\_B\_ITX\_E + X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 2\_B\_IR\_E +$ $X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 3\_B\_ITX\_E + X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 3\_B\_IR\_E +$ $X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 4\_B\_ITX\_E + X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 4\_B\_IR\_E +$ $X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 5\_B\_ITX\_E + X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 5\_B\_IR\_E +$ $X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 6\_B\_ITX\_E + X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 6\_B\_IR\_E +$ $X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 7\_B\_ITX\_E + X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 7\_B\_IR\_E +$ $X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 8\_B\_ITX\_E + X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot 8\_B\_IR\_E +$ $X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot P\_M\_E +$ $X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot P\_G\_E +$ $X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot T\_M\_E +$ $X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot T\_G\_E +$ $X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot AL\_M\_E +$ $X32 \cdot \text{Auto\_Esku} \cdot AL\_G\_E +$	$\overline{\text{Auto\_Esku}}$

Laugarren taula baten bidez, 3.4.4. taulan, turbinaketa prozesua agertzen da azalduta, hemen aurreko ataleko “3.Turbinaren Abiaduraren Kontrola” atala azaldutako abiadura kontrola egiten da, kasu honetan programa bidez egiten denez hemen zehaztu behar abiadura kontrola. Hemengo Grafcet honen eraldaketan alabeen kontrola hartuko da kontuan. Kitzikapenaren kontrol egiteko kanpoko sistema bat erabiliko da, horregatik ez da hemengo programazioan kontuan hartu.

Taula 3.4.4. Turbinaketa.

ETAPA	SET	RESET
X50	X62	X6
X51	X6	$M\_S\_1\_max \cdot M\_S\_2\_max \cdot M\_S\_1\_min \cdot M\_S\_2\_min$
X52	$X51 \cdot M\_S\_1\_max \cdot M\_S\_2\_max \cdot$ $M\_S\_1\_min \cdot M\_S\_2\_min$	$\overline{B\_2\_S}$
X53	$X52 \cdot \overline{B\_2\_S}$	$\overline{B\_6\_S} \cdot \overline{B\_8\_S}$
X54	$X53 \cdot \overline{B\_6\_S} \cdot \overline{B\_8\_S}$	$B\_4\_S\_1$
X55	$X54 \cdot B\_4\_S\_1$	sinkronoskopio
X56	$X55 \cdot \text{sinkronoskopio}$	$B\_4\_S\_2$



X57	$X56 \cdot B_{4\_S\_2}$	$Pos\_max \cdot \overline{M\_S\_1\_min} \cdot \overline{M\_S\_2\_min} \cdot M\_S\_1\_max \cdot M\_S\_2\_max$
X58	$\frac{X58 \cdot Pos\_max \cdot \overline{M\_S\_1\_max} \cdot \overline{M\_S\_2\_max}}{M\_S\_2\_max \cdot \overline{M\_S\_1\_min} \cdot \overline{M\_S\_2\_min}}$	Pos_min
X59	Pos_min	B_4_S_0
X60	$X59 \cdot B_{4\_S\_0}$	B_2_S
X61	$X60 \cdot B_{2\_S}$	B_6_S · B_8_S
X62	$X61 \cdot B_{6\_S} \cdot B_{8\_S}$	X8 · X60

Ponpaketa Grafcetaren eraldaketa prozesua 3.4.5. taulan adierazten da, ikusi daitekeen moduan turbinaketa prozesua baino sinpleagoa izango da.

Taula 3.4.5. Ponpaketa.

ETAPA	SET	RESET
X72	X80	X7
X73	$X72 \cdot X7$	$\overline{M\_S\_1\_min} \cdot \overline{M\_S\_2\_min} \cdot M\_S\_1\_max \cdot M\_S\_2\_max$
X74	$\frac{X73 \cdot \overline{M\_S\_1\_max} \cdot \overline{M\_S\_2\_max}}{\overline{M\_S\_1\_min} \cdot \overline{M\_S\_2\_min}}$	$\overline{B\_1\_S}$
X75	$X74 \cdot \overline{B\_1\_S}$	$\overline{B\_3\_S}$
X76	$X75 \cdot \overline{B\_3\_S}$	$\frac{\overline{B\_5\_S} \cdot \overline{B\_7\_S}}{\overline{M\_S\_1\_min} \cdot \overline{M\_S\_2\_min} \cdot M\_S\_1\_max \cdot M\_S\_2\_max}$
X77	$\frac{X76 \cdot \overline{B\_5\_S} \cdot \overline{B\_7\_S} \cdot \overline{M\_S\_1\_max} \cdot \overline{M\_S\_2\_max} \cdot \overline{M\_S\_1\_min} \cdot \overline{M\_S\_2\_min}}{M\_S\_2\_min}$	$M\_S\_1\_max \cdot M\_S\_2\_max + M\_S\_1\_min \cdot M\_S\_2\_min$
X78	$X77 \cdot \overline{M\_S\_1\_max} \cdot \overline{M\_S\_2\_max} \cdot \overline{M\_S\_1\_min} \cdot \overline{M\_S\_2\_min}$	B_1_S
X79	$X78 \cdot B_{1\_S}$	B_3_S
X80	$X79 \cdot B_{3\_S}$	B_5_S · B_7_S
X81	$X80 \cdot B_{5\_S} \cdot B_{7\_S}$	X8 · X72

Seigarren taulan Ziklo Amaieraren eraldaketa agertzen da, 3.4.6. taulan alegia, Grafcet hau aktibatzeke STOP pultsadorea sakatuta egon behar da.

Taula 3.4.6. Ziklo Amaiera.

<i>ETAPA</i>	<i>SET</i>	<i>RESET</i>
X83	X90	X9
X84	X9 · X83	$M\_S\_1\_max \cdot M\_S\_2\_max + M\_S\_1\_min \cdot M\_S\_2\_min$
X85	$X84 \cdot M\_S\_1\_max \cdot M\_S\_2\_max + M\_S\_1\_min \cdot M\_S\_2\_min$	$\overline{B\_2\_S}$
X86	$X85 \cdot \overline{B\_2\_S}$	$\overline{B\_4\_S}$
X87	$X86 \cdot \overline{B\_4\_S}$	$\overline{B\_6\_S} \cdot \overline{B\_8\_S}$
X88	$X87 \cdot \overline{B\_6\_S} \cdot \overline{B\_8\_S}$	$\overline{M\_S\_1\_min} \cdot \overline{M\_S\_2\_min} \cdot \overline{M\_S\_1\_max} \cdot \overline{M\_S\_2\_max}$
X89	$X84 \cdot \overline{M\_S\_1\_min} \cdot \overline{M\_S\_2\_min} \cdot \overline{M\_S\_1\_max} \cdot \overline{M\_S\_2\_max}$	$\overline{B\_2\_S} \cdot \overline{B\_4\_S} \cdot \overline{B\_6\_S} \cdot \overline{B\_8\_S}$
X90	$X89 \cdot \overline{B\_2\_S} \cdot \overline{B\_4\_S} \cdot \overline{B\_6\_S} \cdot \overline{B\_8\_S}$	X1 + X83

Azkenik 3.4.7. taulan Alarma pultsadorea sakatuz gero hasieratuko litzatekeen Graficetaren eraldaketa aztertu daiteke.

Taula 3.4.7. Alarma.

<i>ETAPA</i>	<i>SET</i>	<i>RESET</i>
X100	X124	ALARMA
X101	ALARMA	$\overline{F}$
X102	$X101 \cdot \overline{F}$	$\overline{T\_t}$
X103	$X101 \cdot \overline{F}$	$\overline{T\_p}$
X104	$X102 \cdot \overline{T\_t}$	$\overline{T\_t} \cdot \overline{T\_p}$
X105	$X103 \cdot \overline{T\_p}$	$\overline{T\_t} \cdot \overline{T\_p}$
X106	$X104 \cdot X105 \cdot \overline{T\_t} \cdot \overline{T\_p}$	$\overline{T\_t} \cdot \overline{T\_p} \cdot \overline{F}$
X107	$X106 \cdot \overline{T\_t} \cdot \overline{T\_p} \cdot \overline{F}$	$\overline{B\_1\_S}$
X108	$X106 \cdot \overline{T\_t} \cdot \overline{T\_p} \cdot \overline{F}$	$\overline{B\_2\_S}$
X109	$X106 \cdot \overline{T\_t} \cdot \overline{T\_p} \cdot \overline{F}$	$\overline{B\_3\_S}$

X110	$X106 \cdot \overline{T_t} \cdot \overline{T_p} \cdot \overline{F}$	$\overline{B_4S}$
X111	$X106 \cdot \overline{T_t} \cdot \overline{T_p} \cdot \overline{F}$	$\overline{B_5S}$
X112	$X106 \cdot \overline{T_t} \cdot \overline{T_p} \cdot \overline{F}$	$\overline{B_6S}$
X113	$X106 \cdot \overline{T_t} \cdot \overline{T_p} \cdot \overline{F}$	$\overline{B_7S}$
X114	$X106 \cdot \overline{T_t} \cdot \overline{T_p} \cdot \overline{F}$	$\overline{B_8S}$
X115	$X107 \cdot \overline{B_1S}$	$\overline{B_1S} \cdot \overline{B_2S} \cdot \overline{B_3S} \cdot \overline{B_4S} \cdot \overline{B_5S} \cdot \overline{B_6S} \cdot \overline{B_7S} \cdot \overline{B_8S}$
X116	$X108 \cdot \overline{B_2S}$	$\overline{B_1S} \cdot \overline{B_2S} \cdot \overline{B_3S} \cdot \overline{B_4S} \cdot \overline{B_5S} \cdot \overline{B_6S} \cdot \overline{B_7S} \cdot \overline{B_8S}$
X117	$X109 \cdot \overline{B_3S}$	$\overline{B_1S} \cdot \overline{B_2S} \cdot \overline{B_3S} \cdot \overline{B_4S} \cdot \overline{B_5S} \cdot \overline{B_6S} \cdot \overline{B_7S} \cdot \overline{B_8S}$
X118	$X110 \cdot \overline{B_4S}$	$\overline{B_1S} \cdot \overline{B_2S} \cdot \overline{B_3S} \cdot \overline{B_4S} \cdot \overline{B_5S} \cdot \overline{B_6S} \cdot \overline{B_7S} \cdot \overline{B_8S}$
X119	$X111 \cdot \overline{B_5S}$	$\overline{B_1S} \cdot \overline{B_2S} \cdot \overline{B_3S} \cdot \overline{B_4S} \cdot \overline{B_5S} \cdot \overline{B_6S} \cdot \overline{B_7S} \cdot \overline{B_8S}$
X120	$X112 \cdot \overline{B_6S}$	$\overline{B_1S} \cdot \overline{B_2S} \cdot \overline{B_3S} \cdot \overline{B_4S} \cdot \overline{B_5S} \cdot \overline{B_6S} \cdot \overline{B_7S} \cdot \overline{B_8S}$
X121	$X113 \cdot \overline{B_7S}$	$\overline{B_1S} \cdot \overline{B_2S} \cdot \overline{B_3S} \cdot \overline{B_4S} \cdot \overline{B_5S} \cdot \overline{B_6S} \cdot \overline{B_7S} \cdot \overline{B_8S}$
X122	$X114 \cdot \overline{B_8S}$	$\overline{B_1S} \cdot \overline{B_2S} \cdot \overline{B_3S} \cdot \overline{B_4S} \cdot \overline{B_5S} \cdot \overline{B_6S} \cdot \overline{B_7S} \cdot \overline{B_8S}$
X123	$X117 \cdot X118 \cdot X119 \cdot X120 \cdot X121 \cdot X122 \cdot X123$	REARME · ALARMA
X124	$X123 \cdot \text{REARME} \cdot \text{ALARMA}$	$X1 \cdot X100$

### 3.4.2.3 KOP PROGRAMAZIOA



